

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

LURRALDE OREKAREN SAILA

Argitaratzea informatika arloan Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako udalerrien arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu duten Arabako Lurralde Historikoko toki erakundearen zerrenda

Lurralde Oreaken Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 38/2021 Foru Dekretuaren 8.o) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Lurralde Oreaken Sailak berariaz du esleituta toki erakundeetan teknologia berrien erabilera bultzatzeko eginkizuna.

Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta Bertako Lurralde Historikoko Foruzko Jardute Erakundearen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 5. Artikuluan jaso da aldundiaren gai horretako eskumen araubidea; hain zuzen, foru lurraldeei eskumen eskusiboa esleitzen die toki erakundearen laguntza eta aholkularitza teknikoan.

Estatuaren oinarritzko araubideari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 36.1g) artikuluan ezartzen du Arabako Foru Aldundiaren berezko eskumena dela administrazio elektronikoko zerbitzuak ematea 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.2 artikulua xedatzen du administrazio publikoek bitarteko elektronikoen bidez izango dituztela harremanak beren artean, haietako bakoitzak hautatutako sistema eta konponbideen elkarreragingarritasuna eta segurtasuna ziurtatuta. Aurreko lege hori garatzeko, martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardueraren eta funtzionamenduaren araudiari.

Azkenik, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Dekretuak zortzigarren xedapen gehigarriko 3. puntuan xedatutakoaren, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa ezarritakoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Legeak 48. artikuluko bosgarren paragrafoan jasotako subrogazio klausularen arabera, foru aldundiek izango dute eskumena, bakoitzak bere lurralde eremuan, toki erakundeekin hitzarmenak sinatzeko, aipatutako toki erakundearen ekonomia eta finantzen, kontabilitatearen eta aurrekontuaren kudeaketaren barneko kontrola eta fiskalizazioa egiteko ardura duten organoen autonomia eta eraginkortasuna indartzeko.

Arabako Lurralde Historikoa tresna informatikoa eman dizkie etengabe Arabako toki erakundeek joan den mendeko 1980ko hamarkadatik aurrera, erakunde horien barne kudeaketa egokia egiten laguntzeko. Erakundea eta kanpo harremanak garatzeko prozesuaren berezko zati gisa, 2011. urteaz geroztik, aldundiak administrazio elektronikoko programak jarri ditu udalen eta kaudillen eskura.

Foru Aldundia 2021ean hasi zen Araba Digital programa bultzatzen, zeinak helburu baitu lurraldeko administrazio publikoen lan egiteko modua eraldatzea.

Horretarako, Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 26ko 251/2022 Erabakiaren bidez (maiatzaren 4ko ALHAOn argitaratua, 51. zk.), onetsi zen hala xedatzen duten Arabako toki erakundearen eta foru aldundiaren artean informatika arloan sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmenaren eredu. Lurralde historikoa honetako zenbait toki erakundek adierazi dute interesa dutela azaldutako lankidetzaren hitzarmena foru aldundi honekin formalizatzeko.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 2ko 40/2015 Legearen 11.3 b) artikuluan xedatutakoa betez, jarraian zerrendatzen dira informatika arloan Arabako Foru Aldundiarekin lan-kidetza hitzarmena sinatu duten Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak. Hitzarmen horren edukia, azaldu den bezala, maiatzaren 4ko 251/2022 ALHAOn argitaratua da.

KUADRILLAK
Aiara
Añana
Gorbeialdea
Arabako Lautada
Arabako Mendialdea
Biasteri-Arabako Errioxa
UDALAK
Agurain
Aiara
Amurrio
Añana
Armiñón
Arraia-Maeztu
Arratzua-Ubarrundia
Artziniega
Asparrena
Barrundia
Bastida
Berantevilla
Bernedo
Bilar
Burgelu
Donemiliaga
Erriberagoitia
Erribera Beitia
Eskuernaga
Gaubea
Harana
Iekora
Iruña Oka
Iruraiz-Gauna
Kripan
Kuartango
Lagrán
Lantziego
Lantarón
Lapuebla de Labarca
Legutio
Leza
Llodio
Kanpezu
Mañueta
Moreda Araba
Navaridas
Okondo
Oyón-Oion
Peñacerrada-Urizaharra

UDALAK
Samaniego
Zalduondo
Zuia
ADMINISTRATIO BATZARRAK
Legutio
Iruña Oka

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 3an

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA